

Ixa ikerketa taldeak adimen artifiziala aplikatu du COVID-19aren aurka

berria.eus/paperekoa/5002386/011/005/2020-05-12/ixa-ikerketa-taldeak-adimen-artifiziala-aplikatu-du-covid-19aren-aurka.htm

Berria

DONOSTIA. AEBetako Gobernuak bultzatuta COVID-19aren gaixotasunaren inguruan antolatutako adimen artifizialeko txapelketan saria jaso du EHUko Ixa ikerketa taldeak, hizkuntzaren prozesamendurako adimen artifizialaren erabileran egindako lanagatik. Ixa taldeak azaldu duenez, etengabe sortzen den informazio kantitate handiari aurre egiteko, hizkuntzaren prozesamendurako sistemek sekulako garrantzia dute, eta horren froga da saria.

BERRIaren papereko edizioaren gai nagusiak biltzen ditu **Goizeko buletina** egunero (astelehenetan salbu). Goizean goiz iristen da zure posta elektronikora.

Albiste gehiago

Azkeneko 24 orduetan bost gaixo hil dira COVID-19 gaitzaren eraginez. Hamabost positibo atzeman dituzte PCR probekin. Euskal Herrian 30.428 gaixok eman dute positibo guztira, koronabirusa atzemateko probaren bat eginda. Horietatik 2.130 hil dira. **Grafikoak, albiste barruan.**

Iaz garai berean baino %47 gehiago izan dira hizkuntz eskubideekin lotutako kekek. Behatokiak salatu du erakunde publikoek «bigarren mailakotzat» dutela euskara: haiekin loturikoak dira hamar kekatik sei.

Itxialdiak mendeko pertsoneri ekarririko arazoan larriaz abisu ematen jardun du Mikel Malkorrek. Arazook ikusi ditu 6 urteko alabarengan Maialen



Zabalbeaskoak: hain handia izan da haren premiekiko arta falta, zentro itxi batean sartu behar izan baitute, min handiz.

Hamar positibo gehiago atzeman dituzte PCR proben bidez. Gaur erregistratutako azken bost heriotzarekin, hildako guztien kopurua 2.130ra iritsi da.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIaren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

[Izan zaitez BERRIAlaguna](#)

